

txintxarri



Bakardadearen aurka

Adinkideren aldeko kontzertua eman dute Alboka abesbatzak, ATLO danborradak eta Getariako Bandak / 4

TXINTXARRI

Korrikarako prest

Hasi da Korrika Kulturala herrian. Datorren ostiralean, 15:30ak aldera igaroko da Korrika / 5

EH Bilduk udal hauteskunderako zerrenda aurkeztu du: "ilusioz" hartu du lekukoa talde berriak / 2

Lorena Zabalak lehen partida irabazi du izotz hockeyko munduko txapelketan, Eskozian / 12

2 mó graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekin

99€

(bat eguzkitakoa izan daiteke)



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com   

Lekukoa "gogoz" hartu du EH Bilduko talde berriak

EH Bilduk udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du. Lehen postuetan berriak dira ia denak; aurreko taldeak ez du jarraituko. Alkatetza lortu zuteneko ilusioa berreskuratu du Pablo Barriok: "Ezinezkoa zirudien, baina azkenean lortu genuen"

Adrian Garcia

Egunotan Korrikaren lekukoa pasatuko dute esku batetik bestera Euskal Herri osoan. Lasarte-Oriako EH Bildun ere pasarazi dute testigua, beste era batekoa: politikoa. Maiatzeko udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu dute. Aldaketa erabatekoa da; egungo lau zinegotzietatik inork ez du jarraituko. Pablo Barriok eta Leire Elizegik itxiko dute zerrenda, hemeretzigarren eta hogeigarren postuetan, hurrenez hurren. Horregatik, agur kutsua hartu du Barrioren hitzaldiak. Baina itxaropenerako atea zabalik utzi du. "Duela zortzi urte ezinezkoa zirudien alkatetza hartzea, eta gertatu zen. Konfiantza dut gertatuko dela".

Barrio berak eman ditu talde berriaren inguruko zertzelada batzuk. "Herriko elkarte eta beste eragileetan lan egindakoak dira, eta, hain zuzen, lan hori eramango dute udalera". Azken zortzi urte horietan ikasitakoa lantalde berriaren eskura utziko du egungo udal taldeak. 2015eko bozetan lau zinegotzi eskuratu zituen EH Bilduk.

Uxue Loinazek, zerrendako bigarrenak, egin zituen aurkezpen lanak. Talde "berria eta indartsua" da EH Bilduk aurkeztutakoa; lehen postuetako gehienak aurreneko aldiz egin dute jauzi politikagintzara, "ilusio handiz". Loinazen kasua ere bada: mugimendu feministako kidea da bera, euskara irakaslea.

Joxe Pikabeak hartu du hirugarren tokia. Ttakun Kultur Elkarteko kudeatzaile izandakoa da, eta Ostadar SKTko koordinatzailea da egun.

Estibaliz Garmendia da laugarrena. Oriarte ikastetxeko jangelako langilea, kulturagintzako proiektu askotan egin du lan.

Asier Gorostegi, berriz, bosgarrena da. Enpresaritza ikasketak egindakoa, Ttakun



EH Bilduko zerrendakideak, asteazkeneko aurkezpenean. TXINTXARRI

Kultur Elkartean aritu da lanean, begirale eta administrari gisa. Urtxintxa elkartean egiten du lan egun.

Jon Martin, alkategaia

Michelingo langilea eta sindikalista ezaguna, urte luzez LABeko ordezkarria. Jon Martin alkategaia itxi du aurkezpenen tarte. Aurretik alderdiaren alde lan egindakoei eskerrak eman, eta aitorten zintzo batekin hasi du hitzaldia Martinek: "Urduri gaude, eta kezka asko ditugu". Baina gauzak garbi ditu: "Bidea ez da erraza izango, baina erronkari gogotsu eutsiko diogu". Bidaia hori "elkarrekin" egiteko gonbita luzatu die alkategaia bertaratutakoei.

Jon Iñarritu EH Bilduko Espainiako senatariak eta kongresurako hautagaiak lagundu du Martin ekitaldian. Apirilaren 28ko Espainiako hauteskundeetara begira, EH Bilduren lana "erabakigarria" dela ohartarazi du, "Madrildik datozen hodei beltzen aurrean".

Zerrendako kideak

- Jon Martin Tejeria
- Uxue Loinaz Urruzola
- Joxe Pikabea Bereziartua
- Estibaliz Garmendia Arrieta
- Asier Gorostegi Aliri
- Rosa Ormazabal Camarero-Nuñez
- Oihan Agirretxe Iradi
- Maddi Iparragirre
- Aner Lozano
- Marijo Goizueta Garmendia
- Mikel Olaiz Garmendia
- Isa Fernandez de Agirre Amilibia
- Gorka Lasa Azpiazu
- Jurdana Anton Iradi
- Ricardo Manuel Calçada de Carvalho
- Koro Mujika Arozena
- Julian Pavo Giraldo
- Arantxa Otaegi Arruti
- Pablo Barrio Ramirez
- Leire Elizegi Beloki



Zaballo, PSE-EEko egoitzaren aurrean. TXINTXARRI

Legealdiko balantzea egin du Zaballosek: "Aurrera egin dugu"

Udal hauteskundeetara begira, orain lau urte hitzemandako neurri gehienak bete dituztela esan du PSEko hautagaiak

Txintxarri

Orain lau urte hartu zuen Zaballosek Lasarte-Oriako Udaleko agente makila, eta legealdian egindako kudeaketaren balantzea egin du orain, udal hauteskundeetan atarian. Herriko etxebizitza guztietara banatu du PSE-EEk liburuxka bat, alor guztietan egindako lanaren berri emateko. Pozik agertu da alkatea, oposizioko alderdi ia guztiekin lortu duelako akordioak egitea. PP, EAJ eta ADLOP aipatu ditu. "Asko egin dugu, baina oraindik asko dago egiteko".

Udalan PSE-EEk agintea berreskuratu zuen garaia ekarri du gogora. "Hiru alderdiek, EH Bilduk, EAJk eta Plataforma Herritarrak, gobernua utzi zuten dena geldirik zegoen". "Ilusio askorekin" ekin zioten orduan; zerrendako hautagai gehienak berriak ziren.

Diru kontuak nabarmendu ditu PSE-EEko hautagaiak. 2015. urtetik lau aurrekontu onartu dituzte. "Zorra kitatu dugu, eta aurrekontua 28 milioi eurokoa da egun. Altxortegian 13 milioi euroko geldikina dugu. Bederatzi milioi ditugu gastatzeko. Kaudimen oso ona dugu". Diru hori kiroldegiko proiektura bideratzeko asmoa du alkatea.

Balantzea egiterako orduan askotan egin du atzera Zaballosek. 2015ko hauteskunde programa oroitarazi du. 147 neurri iragarri zituzten orduan. "130 bete ditugu. Zortzi martxan daude, eta beste bederatzi ezin izan dira gauzatu. %93 bete dira, edo betetzeko bidean daude".

Azken lau urteetako lanean "hutsagiteak" egin dituztela ere aitortu du, eta horiengatik "barkamena" eskatu du.

Sagardo-potea, asteazkenean

Datorren asteazkenean Sagardo-potea antolatuko du Aterpea merkatarien eta ostalarren elkarteak. Bederatzi tabernak parte hartuko dute: Yolanda, Txema, Txartel, Zumaburu, Primeran, Buenetxea, Avenida, Eguzki eta Isla Plazak. Sagardoa eta pintxoak eskainiko dute 1,5 euroren truke, 19:00etatik 21:00etara. Inguruko sagardotegietatik ekarriko dute edaria.



TXINTXARRI



Udaltopeko antolatzaileak, aurreko astean, Donostian egin zuten prentsa agerraldian. KULTURATELIER

Erakundeen arteko elkarlana, Udaltopen

Maiatzaren 16an eta 17an egingo dute euskara teknikarien topaketa Lasarte-Orian, Manuel Lekuona kultur etxean. Lehen aldiz sartu dira antolaketa batzordean lurralde guztietako administrazioak. Izen ematea zabaldu dute, 65 eurotan, maiatzaren 3ra arte

Txintxarri

Elkar ulertzetik elkarrekin lan egitera... Ados? Izenburu horren pean abiatuko da Udaltop maiatzaren 16an eta 17an Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Erakundeen arteko elkarlana landuko dute aurtengo euskara teknikarien topaketetan. 11. edizioa egingo dute maiatza erdialdean, eta dagoeneko ireki dute epea izena emateko. Maiatzaren 3ra arte egongo da horretarako denbora, 65 euroren truke.

Euskarak sustapenerako behar duen elkarlan horren isla da aurtengo edizioa. Izan ere, babesle askok urratsa egin dute, eta antolatzaile lanetara pasatu dira. Horrenbestez, antolamendu batzordean daude EAeko hiru foru aldundiak, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzza eta Euskal Hirigune Elkargoa. Baita Lasarte-Oriako Udala ere, Udaltopen bultzatzailea.

Estitxu Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara

Sustatzeko zuzendariak aurkeztu du Udaltop, Mikel Arregi Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendariarekin eta Beñat Arrabit Euskal Elkargoko Hizkuntza Politikarako arduradunarekin batera. Elkarlanaren garrantzia nabarmendu du Lasarte-Oriakoak: "Euskara sustatzeko politiken eraginkortasuna biderkatzen da, baldin eta horien oinarrian elkarlana badago. Erakundeen arteko lankidetzaren behar-beharrezkoa da, eta horri esker, hizkuntza politika koherente bat sustatzen ari gara euskararen eremu osoan".

Euskaraldiari buruz ere jardungo dute topaketetan. "Erakunde publikoen eta

EUSKARALDIARI ERE HELDUKO DIOTE, "ERAKUNDEEN ELKARLANAREN ISLA DELAKO"

euskararen alde lanean ari diren eragileen arteko elkarlana funtsezkoa dela erakutsi digu", esan du Alkorta.

Euskaraldia ere present

Lehenengo atalean gobernantza eredu berrien inguruko ponentziak emango dituzte, ostegunean, maiatzaren 16an. Bi hitzaldi teoriko, lau esperientzia praktikoa eta mugaz gaindiko lankidetzaren inguruko ikuspegi kritikoa emango dute. Bigarren blokean helduko diote Euskaraldiari. Orain arteko esperientzia on eta txarretatik ikasteko hitzaldia antolatu dute, eta inkestek utzitako ikerketa kualitatiboaren berri emango dute.

Hitzaldien eta praktiken egitarau osoa ikusteko eta izena emateko, www.udaltop.eus webgunea bisita daiteke. Jardunaldien prezioan sartzen da Araetako jatetxean ostiralean egingo duten bazkaria.



ASIER ODRIOZOLA

Iñaki Chourraut

Garai berrien iragarleek diote liburuak eman dituela onenak, azkenetan dela eta gainerako informazio eta entretenimendu moduek irentsi egin dutela. Paperaren gozamenaren zer den badakigunok ez dugu hori sinetsi nahi, eta beraz, ez dugu sinesten.

Gozamen horren arabera klub, elkarte, fundazio edo halako zerbait sortu izan bagenu Lasarte-Orian, ezustean joan zaigun Iñaki Chourraut izango zukeen presidente, modu naturalean edo beharrezko izanez gero, bozketa baten ondorioz. Gure herrian izan diren liburu-denda guztiek itxi ondotik, Iñakiren EKAINek atea irekita eduki ditu urtetan eta urtetan. Liburu eskaintza zabala nahi zuenak hara joan behar zuen, Donostiara joan nahi ez bazuen behintzat. Horrek izen bat eta aura bat eman dio Iñakiri.

Bai, horretaz gainera, Txeloren senarra eta Oihaneren zein Maialenen aita ere bazen Iñaki, eta Maialenek olinpiar jokoetan urrezko domina leporatu zuenez, urrezko dominadun baten aita ere bai.

Baina Iñaki batik bat liburuekin, arkudun fatxada zuen liburu dendako literatur apasionatuaren irudiarekin lotzen dugu, itsutsuan liburu bat erostera joan eta doako gomendioa egiten zuen gizonarekin.

Nahiz guk sinetsi nahi ez, desagertuko dira agian noizbait liburuak, baina oraindik halakorik gertatu ez bada, besteak beste, Iñaki bezalako pertsonengatik izan da. Zutabe umil honetatik, eskerrik asko.



Udalteixe zaharraren parean elkartu ostean Okendora bildu dira. TXINTXARRI

Presoen eskubideen alde egiteko elkarretaratzea

Txintxarri

Hilabete bizia izan da martxoa. Lasarte-Oriako Sare Herriarrak ekitaldi ugari antolatu ditu, herriko euskal presoen errealitatea ezagutarazteko. Aurreko ostiralean itxi zuten ziklo hori, hilabete bukaerako elkarretaratzearekin. Udalteixe zaharraren parean elkartu ziren hainbat herritar, eta bereziki herriko euskal presoen

eskubideen alde egin zuten. Xabi Gallagak, Aitzol Iriondok eta Ibon Fernandezek urruneko kartzeletan jarraitzen dute.

Bi hitzaldi antolatu zituen Sarek aurreko hilabetean. Anaiz Funosas eta Maritxu Paulus Basurko adituek presoen egoeraren berri eman zuten. *Azken arnasa arte* dokumentala eman zuten beste egun batean, eta presoen senideek errealitatea bistaratu zuten.



Alboka abesbatza, Getariako Musika Banda eta ATLO danborrada, elkarrekin jotzen, pasa den larunbateko jaialdian. TXINTXARRI

Ikus-entzuleak boluntario bilakatzeko

Adinkidek erakundea ezagutzera emateko jaialdia ospatu du Manuel Lekuona kultur etxean. Alboka abesbatzak, Getariako Musika Bandak eta ATLO Lasarte-Oriako danborradak parte hartu dute. Lepo bete da aretoa; arratsalde ederra pasa dute denek

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ferminek, Trinik eta Maitek arratsalde bikaina pasa zuten iragan larunbatean kultur etxean. Adinkideko hiru erabiltzaile dira, eta, astero-astero, plan ederrak egiten dituzte. Alboka abesbatzak, Getariako Musika Bandak eta ATLO Lasarte-Oriako danborradak eskainitako emanaldiaz gozatu zuten pasa den asteburuan. Egiten duen lana ezagutze aldera prestatu zuen jaialdia Adinkidek. Lepo bete zen auditorioa; 300 bat ikus-entzule elkartu ziren.

Mari Karmen Ormazabalek eta Leyre Garciak aurkeztu zuten jaialdia. Garciak Adinkiden egiten du lan. Esplikatu zuen zer egiten duen erakundeak: "Boluntarioak gara Adinkiden, eta bakardadea pairatzen duten pertsonekin elkartzen gara, astero, konpainia egin eta euren bizi-kalitatea hobetzeko. Lagun talde bat gara". Iaz hasi ziren herrian lanean, eta sarea hedatu nahi dute orain, boluntario

gehiago lortu, ahalik eta pertsona gehienei laguntzeko.

Alboka abesbatzako kideak izan ziren kultur etxeko oholtzara igotzen lehenak. Korua sortu zenetik, 1988an, hamaika emanaldi eskaini dituzte Euskal Herrian, Espainiar estatuan eta Europan. Montse Latorreren zuzendaritzapean, *Maiteak galde egin zautan*, James Taylorren *That lonesome road*, Ken Zazpiren *Itsasoa gara* eta *Itsasoa laino dago* herrikoia abestu zituzten.

Musika banda, 23 urte eta gero

Ikusgarria izateaz gain, historikoa ere izan zen larunbateko jaialdia. Duela 23 urte jo zuen azkenekoz musika banda batek herrian. Hondarribiko Banda aritu zen.

IÑIGO PEÑAK MOLDATUTAKO LASARTE-ORIAREN ERESERKIAK ITXI DU EMANALDIA

Atzo, berriz, Getariakoa. Gazteak izan arren, artista beterano eta eskarmentudun teknikarekin jo zuten, gazte izatearen freskotasan, indar eta energiarekin uztartuz. Ikus-entzuleek biziki eskertu zuten musikariak instrumentuekin egindako lana. Eneritz Jauregik zuzendu zuen emanaldia.

ATLO Lasarte-Oriako danborradako kideek lagundu diote Adinkideri jaialdia prestatzen. Lan horiek egiteaz gain, emanaldian ere parte hartu zuten. *Donostiako Martxa* interpretatu zuten, besteak beste. Felix Telleria danbor nagusiak gidatu zuen danbor-joleen erritmoa. 1969tik darama karguan herritarrak. Aurten utziko du, San Pedro jaiak eta gero.

Lasarte-Oriako ereserkia joz itxi zuten jaialdia. Iñigo Peña musikariak moldatu zuen pieza. Oroigarri bat jaso zuen, beste parte-hartzaile guztiek bezala. Kafetegian luntx goxo bat jan zuten ondoren.



TXINTXARRI

Okendo loratu du udaberriak

Udaberri giroa Okendon. Lore eta Landareen VII. azoka egin zuen larunbatean Behemendi elkarteak, udalarekin elkarlanean. Hamahiru ekoizle euren ortu eta haztegiakoko produktu onenak ekarri zituzten plazara. Gaztetxoentzako tailerrak ere antolatu zituzten.



Herritar asko hurbildu ziren Iñigo Urrutiaren azalpenak entzutea. TXINTXARRI

Estatutu berriari buruz, Iñigo Urrutiarekin solasean

Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok gonbidatuta, legebiltzarraren egitasmoari buruz aritu da aditua

Txintxarri

Estatutu berriaren bizkarrezurra osatzen ari diren bost adituetako bat da Iñigo Urrutia. Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok gonbidatuta, edukiari buruz aritu zen larunbat goizean, luze eta zabal. Oriarte institutuko Larrekoetxe eraikinean hitz egin zuen. Galdera-erantzun formatuko saioa izan zen, *Berriketan* egitasmo hiru garrena. *Berria* kazetari Maider Galardik elkarrizketatu zuen aditua. Ikus-entzuleek parte hartzeko aukera izan zuten amaieran.

Eusko Legebiltzarrak autogobernua berrizatzeko

oinarri batzuk onartu zituen, eta bost jurista izendatu, testu juridiko bat osatzeko. Horretan dabil Urrutia egun. Funtsezko kontzeptuetako bat da erabakitze eskubidearena; atal guztietan agertzen da. Giza eskubideak ere jorratzen ditu. Presentzia handia dute emakumeenak, esate baterako.

Testu juridikoa gorpuzten dutenean, Legebiltzarrera eramango dute berriro. Ondoren, "galdeketa gaitzaile" bat egingo dute EAEn, jakiteko gizartea konforme ote dagoen estatuarekiko harreman "konfederal eta alde biko" horrekin.

Euskal dantzaren unibertsoa ezagutzen

Astebete geratzen da Lasarte-Oriak 'klika' egin eta 21. Korrikan parte hartzeko. Motorrak berotze aldera, Korrika Kulturala antolatu du AEK-k. Telmo Esnalek zuzendutako 'Dantza' film luzearen proiektioa izan da ekitaldietako bat

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Pelikula bat egileena da zinema areto batean proiektatzen duten arte; ikus-entzuleena izatera pasatzen da orduan. Zuen da film hau orain; goza ezazue". Telmo Esnal zuzendari zarauztarraren hitzak dira. Ostiral iluntzean Manuel Lekuona kultur etxera etorri zen, Juan Antonio Urbeltz koreografoarekin batera, *Dantza* film luzeari buruz hitz egitera bertan bildutako ikus-entzuleekin. AEK-k antolatu duen Korrika Kulturalako lehenengo ekitaldia izan da. Datorren asteko ostiralean, arratsaldeko seietan, 21. Korrika aurkeztuko dute ofizialki kultur etxean bertan. Lasarte-Oriatik apirilaren 12an pasako da, ostirala, 15:30ak aldera.

2018an aurkeztu zuten *Dantza*. Orduraz geroztik, hamaika aretotan proiektatu dute, eta arrakasta handia izan du. Lehengo urteko Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean sartu zuten. Euskal dantza tradizionalaren unibertsoa erakusten du Esnalek. Hainbat dantzarik parte hartu dute; tartean, Lasarte-Oriako Erketz EDTko hainbat kidek. "Zoritxarrez, dantzariak ez dira profesionalak, ez da haien ogibidea, baina pelikularen



Bere filmari buruzko azalpenak eman zituen Telmo Esnalek. TXINTXARRI

emaitza profesionala da", esan zuen Esnalek. Urteko lau urtarotetan grabatu zuten. Gehienbat, oporraldietan. Asteburuetan entseatzeko zuten dantzariekin.

"Dantza niretzat zer den? Dantza nire alboko gizon hau da, Juan Antonio Urbeltz da", zioen Esnalek ostiralean. Zuzendariak azaldu zuen Urbeltzengana jo zutela Koldobika Jauregik eta berak, erabaki zutenean euskal dantza tradizionalari buruzko film bat egitea. Duela hainbat urte

elkarrekin egin zuten dantza, Esnalek aitortu zuenez. Koreografoa da Urbeltz, eta dantzari fina, pelikulan ikus daitekeenez. Euskal dantzan aditua da, eta sinbologian ere bai. Hainbat adibide jarri zituen ostiralean, ikus-entzuleen harridurarako.

Okendo Zinema Taldeko Mikel Yarzak aurkeztu zituen gonbidatuak. Hamabost bat minutuz solasean aritu eta gero hasi zen proiektioa. Gustura atera ziren ikus-entzuleak kultur etxetik.



TXINTXARRI

Udako Txokoen zain

Udako Txokoen izena ematea ireki zuen astelehenean Ttakun Kultur Elkarteak. HH3tik LH6ra bitarteko gaztetxoek eman dezakete izena, uztailean euskarazko aisialdi programan parte hartzeko. Ilara luzea sortu zen goizetik izena emateko, nahiz eta aurten Internet bidez egiteko aukera ere bazegoen. Edonola ere, oraindik ere geratzen dira plaza gutxi batzuk adin tarte batzuetan.



TXINTXARRI

Su artean ikasten

Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, sukaldaritza tailerra hasi dute Ttakunenea elkartearen. Ane Galardi eta Beñat Saldias Basque Culinary Centerreko ikasleak dira ikastaroko arduradunak. Dozena bat pertsonak eman dute izena, asteazkeneko su artean ikasteko.

UDAKO TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali edo ekarri zure curriculum eta eskaera-orria beteta Ttakunera **maiatzaren 10a** baino lehen.

*bulegoan eskuragarri, www.txintxarri.eus webgunean edo <https://labur.eus/begirale2019>

Betebeharrak:

- Begurale titulua
- EGA edo baliokidea den agiria
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria.



asia@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48



IRTEERA 2019ko IRAILEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiek.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



«Lanbide Heziketa mundua enpresa munduarekin dago erabat erlazionatuta, eta enpresa mundua nahiko erdalduna izan da», onartzen du Ainitze Blancok, Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendari eta Laneki Lanbide Heziketa indartu eta hobetzeko Elkarteko lehendakariak.

Errealitate hori aldatzeko sortu zuten, hain zuzen, Elkartea hura 2001. urtean, Ikaslan Gipuzkoa, Ikaslan Bizkaia, Ikaslan Araba eta Hetel elkarten artean. Lanbide heziketaren euskalduntzea» zuen helburu, eta horretan dihardute, besteak beste, Buruntzaldeako Udalen laguntzari esker.

Ikasmaterialen hizkuntza, oztopo

Bide horretan, ikasmateriala euskaratzeari ekin zioten, izan ere, «arazoa zen, baita ere, material asko gaztelania hutsean zegoela, eta euskarazko eskolak ematerakoan, oztopatu egiten zuen», dio Blancok.

Horri esker, egun 24 arlo profesionaleko 801 ikasmaterial daude euskaratuta www.jakinbai.eus web-orrian.

Horrekin batera, Lanbide Heziketako hiztegia ere jarri zuen martxan Laneki elkarteak 2010. urtean. 2017an hiztegi kolaboratibo bihurtu zuten, eta horri esker, dagoeneko 11.000 termino jasotzen ditu, hau ere, Lanbide Heziketa euskaraz ikastea errazteko.

Enpresetan jarraipena, euskarazko ikasketek

Aurreneko oztopoan, beraz, laguntzen ari da Laneki elkarteak, baina bigarren pauso bat ere beharrezkoa da ikas-prozesu osoa euskalduntze aldera: «oso garrantzitsua da ikasle euskaldunei aukera ematea praktikak ere euskaraz egiteko». Ez bakarrik ikaslearentzat berarentzat: «era berean, gizartean nabaritu egiten da hori», onartzen du Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendariak.

Horrek datuetan eragin zuzena dauka. Egun ikasleen %40ak euskaraz ikasten du Lanbide Heziketan, eta kopuru hori are altuagoa izateko, lanean ari dira Buruntzaldeako Udalak.

Ikasketen alderdi praktikoan ere, datuak positiboak direla onartzen du Lanekiko lehendakariak: «Lantokiko Prestakuntza egiten duten ikasleen %62,74ak euskaraz



Eraikuntzaren bueltan, hiru ziklo eskaintzen ditu Lasarte-Oriako EAGI ikastetxeak. EAGI

Lan mundurako sarbidea, eskualdean eta euskaraz

Ikas-prozesua euskalduntzeaz aparte, lan prestakuntza ere euskalduntzeko bidean, Lanbide Heziketako elkarteek eta erakunde publikoek egindako lanari esker, besteak beste. Hortaz, hurrengo ikasturtean ere, euskaraz ikasteko hamaika aukera izango da

egiten du, eta Duala egiten ari diren ikasleen %52,24ak egiten du euskaraz».

Prestakuntza horretan jarri du indarra azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiak: «Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritza nagusiak lantokietan prestakuntza aldiak euskaraz egiteko diru-laguntzak ematen dizkie hala eskatzen duten enpresei». Zehazki, 2018an, lurraldeko 90 enpresek jaso zuten laguntza, guztira, 72.000 euro.

Baina ez da kopuru kontua bakarrik; «enpresak kontzientziatuagoak daude», dio Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendariak. «Beharra» ere areagotu egin dela diote Urnietako Salestar ikastetxetik.

Eusko Jaurlaritzak bultzada ikas-prozesuan

Lanekik materialarekin egiten duen lanaren, eta Foru Aldundia prestakuntza euskalduntzeko egiten ari den indarrarekin bakarrik ez, Eusko Jaurlaritza ere «bultzada» ematen ari da ikas-prozesua euskaraz izateko,

Ainitze Blancoren ustez. Baita Buruntzaldeako Udalak ere, urtero animatzen baitituzte ikasleak euskaraz ikastera.

Horren isla da, hain zuzen, A eta D ereduaren artean dagoen B+ ereduaren ezarpena: «honen arabera, talde bakarra dago euskaraz eta gaztelaniaz ikasle euskaldun eta erdaldunekin. Gai batzuetan bikoiztu egiten dira, eta orduan, euskaldunek dagoeneko bermatuta daukate gai batzuk euskaraz egitea». B ereduaren arazoetako bati aurre egitea da arrazoietako bat, gaztelaniaren presentzia gutxitzea; eta bide batez, «ikasleak animatzea D ereduaren izena ematen».

Izan ere, Urnietako Salestar ikastetxearen iritziz, «DBH edo Batxilergoa euskaraz ikasi duen ikasle batek eskubidea dauka

"LANTOKIKO PRESTAKUNTZA EGITEN DUTEN IKASLEEN %62,74AK EUSKARAZ EGITEN DU"

bere formakuntzarekin euskaraz jarraitzeko».

Ikastetxe berria, Lasarte-Orian

Euskaraz ikasteko aukera zabaltzea da helburua, beraz; eta horretan, aurrerapausoa ere egin dute Buruntzaldean. Aurretik zeuden ikastetxeei beste bat gehitu baitzitzaie aurreko ikasturtean: Lasarte-Oriako EAGI (Gipuzkoako Eraikuntza Eskola).

Hortaz, egun, bost ikastetxetan ikasi daiteke Lanbide Heziketa D eta B ereduaren: Andoaingo Leizaran institutuan eta La Salle Berrozpe ikastetxean; Hernaniko Lanbide Heziketa institutuan; Usurbilgo Lanbide Eskolan; Urnietako Salestar ikastetxean; eta Lasarte-Oriako EAGIn.

Azken hau eraikuntzaren gaiaren bueltan formakuntza eskaintzen duen Gipuzkoako ikastetxe bakarra da. Erdi-mailako bi ziklo eta goi-mailako beste bat eskaintzen dituzte: «lan ikaragarria dago, eta oso ikasle gutxi», azpimarratzen du Lidia Alcerreca ikastetxeko zuzendariak.

D eredia Buruntzaldean

Andoain

- **Leizaran Institutua**
- Goi maila: gizarteratzea.
Informazio gehiago:
leizaran.hezkuntza.net
943 899 259
- **La Salle-Berrozpe**
- Goi maila: fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.
Informazio gehiago:
lasalleberrozpe.eus
943 590 557

Hernani

- Erdi maila: mantentze-lan elektromekanikoa.
- Goi maila: sistema elektroteknikoak eta automatizatuak; fabrikazio mekanikoko diseinua; animazio soziokulturala eta turistikoa.
- Informazio gehiago:
hernanilanh.hezkuntza.net
943 551 958

Usurbil

- Erdi maila: administrazio kudeaketa, instalazio elektriko eta automatikoak; mekanizazioa; hozteko eta girotzeko instalazioak; beroa sortzeko instalazioak.
- Goi maila: administrazioa eta finantzak; automatizazioa eta robotika industrialia; energia eraginkortasuna eta eguzkia-energia termikoa; fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa; instalazio termiko eta fluidoaren mantentzeak.
- Informazio gehiago:
lhusurbil.eus
943 364 600

Lasarte-Oria

- **EAGI**
- Erdi maila: Eraikuntzako teknikaria eta Barruko obrak, dekorazioa eta birgaitzeko teknikaria.
- Goi maila: Eraikuntza-Obrak antolatze eta kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.
- Informazio gehiago:
eagi.eus
943 56 92 22
eagi@eagi.eus

B eredia

Urnietako

- **Salesiarrak**
Informazio gehiago:
urnietakosalesiarrak.com
943 551 789

Andoain

- **La Salle-Berrozpe**
Informazio gehiago:
lasalleberrozpe.eus
943 590 557

"Honek balio izan dit, berriro ere, euskararen munduan murgiltzeko"

VERONICA SANCHEZ IKASLEA

Animazio Soziokulturala eta Turistikoa goi-mailako zikloko praktikak burutzen ari da Veronica Sanchez urnietarra bertako Magale ikastetxean

Hernaniko Lanbide Heziketan Anima-zio Soziokulturala eta turistikoa goi-mailako zikloaren zati teorikoa osatuta, praktiketan dago egun Veronica Sanchez urnietarra, hain zuzen, bere herriko Magale Ikastetxean (Presentacion de Maria ikastetxea zena).

Gaztelania du ama hizkuntza, eta eskolan ikasi du euskara: «Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza euskaraz ikasi nituen, eta ondoren, Batxilergoa, gaztelaniaz. Honek balio izan dit, berriro ere, euskararen munduan murgiltzeko», azaltzen du ikasle urnietarrak, pozik.

Izan ere, onartzen du: «nire ama hizkuntza gaztelania denez, asko kostatzen zait euskaraz hitz egitea, eta hitz egiten ez baduzu, joera galtzen duzu».

Hain zuzen, hori saihestea izan da Sanchezen helburua: «hizkuntza ez



Veronica Sanchez ikaslea.

badugu galdu nahi Lanbide Heziketa euskaraz egitea aukera paregabea da». Baita lanerako ere: «hemen bizi eta lan egin nahi baduzu, beharrezkoa da».

"Gurean ikasle gehiago balego, denak lanarekin aterako lirateke"

LIDIA ALCERRECA ZUZENDARIA

Aurreneko ikasturtea izan zuen EAGI ikastetxeak Lasarte-Orian. Hiru ziklotatik D ereduak bakarria osatzea lortu dute ikasturte honetan

25 urte Altzan egin ondoren, aurreko ikasturtean hasi zuen ibilbidea EAGIk, Gipuzkoako Eraikuntza Eskolak Lasarte-Orian, «Lanbide hutsik zeukan eraikinean», azaldu du Lidia Alcerreca ikastetxe zuzendariak. Hortaz, «oraindik ez dugu aurreneko promozioa atera».

Eraikuntzaren gaiaren bueltan zikloak eskaintzen dituen Gipuzkoako ikastetxe bakarria da. Hiru eskaintzen dituzte. Erdi-mailako bi: Eraikuntza teknikaria eta Barruko obrak, dekorazioa eta birgaitzeko teknikaria. Eta goi-mailako bat: obrak antolatzeko eta kontrolatzeko goi-mailako teknikaria.

Nahiz eta D ereduak eskaintzen duten, taldea ez da beti sortzen: «gu beti saiatzen gara, nahiz eta gutxi jakin, euskaraz egitera bultzatzen», dio Alcerrecak. Aurten, goi-mailako zikloa atera da D ereduak; eta erdi-mailakoak, aldiz, A ereduak. Dena den, «giro euskalduna» dagoela onartzen du: «irakasleen %95a euskalduna da».



Lidia Alcerreca zuzendaria.

Arazoa, ordea, beste bat da: «lan ikaragarria dago, eta ikasle gutxi. Gurean ikasle gehiago balego, denak lanarekin aterako lirateke».

Eta horietako zenbaitetan, «euskara beharrezkoa da», dio Alcerrecak.



11 aukera,
Lan

LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ
AUKERATU Lanbide Heziketa EUSKARAZ

2019 / 2020

BILATU gustukoa duzun zikloa eta
HAUTATU EUSKARAZKO EREDUA!
Arlo guztietan izango dituzu aukerak:

- ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA
- ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA
- GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK
- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ENERGIA ETA URA
- INSTALAZIO ETA MANTENTZEA
- OSASUNGINTZA
- NEKAZARITZA
-

Buruntzaldean:



Informazio gehiago: www.ikaslan.net (ikastetxe publikoak)
www.hetel.eus (ikastetxe pribatuak)


PLAZAN BAZAN

Hau da Festa!

Ui, ui, ui, hori da kuxidatea! Pelloziri urtebetetze-festa ospatzen ari da etxean, baina gonbidatuak ez dabilta oso txukun... Anabasa horretan zazpi ordulari aurkitu behar dituzu. Eta hori egin ondoren, margotu ezazu irudia zure gustura, batere kolorerik ez du-eta.



Sudokua



Osa ezazu sudokua, URTEAK hitza osatzen duten hizkiak (U, R, T, E, A eta K) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



ZortziKoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden zortzi aldeak.

DOMINOAN

Marratz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

Itzala

1

2

3

4

Zein da patinatzaile xeibre honen itzal zuzena?

5

6

7

8

Krono igoera izango du BTT Lasarte-Oria probak

Hilaren 28an jokatuko duten probak 500 txirrindularien langa gainditzea espero dute antolatzaileek. Zailtasunaren arabera mailakatuko hiru ibilbide prestatu dituzte parte hartze zabala izateko. Berritasun gisa, 4 kilometroko krono igoera egingo dute Andatzan



BMW Lurautoko ordezkarri Jorge Espinosa, Jesus Zaballos alkatea eta Fly Groupeko zuzendari Patxi Larrea. TXEMA VALLES

Txintxarri

Herriko BTT zale guztiak hitzordu berezia dute hilabeteko azken igandean, apirilaren 28an. Izan ere, egun horretan jokatuko

baitute BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria proba. Data mantentzea erabaki dute antolatzaileek, Saiatuz elkarteak eta Fly Group-ek; nahiz eta

Espainiako hauteskundeekin bat egin. Proba jendetsua espero dute. Jada 415 partaide dituzte eta 500 baino gehiago izatea espero dute arduradunek. Datu gisa, iaz garai

honetan izena emandakoekin kopuruarekin alderatuta, % 50 hazi da. Beraz, bozak eta txirrindulariak izango dira egun horretan herriko protagonistak.

Asteartean aurkeztu zuten lasterketa, irteera eta helmuga izango dituen tokian bertan: Antonio Mercero plazan. Aurtengo berritasun nagusia 4 kilometroko krono igoera da. Andatzako igoeran egingo dute, 12 eta 16 kilometroen artean, 384 metroko maldan. Sailkapena egingo dute, baina berezia izango da. Adinaren arabera osatu beharrean, norberaren familia mota irizpide hartuta egingo baitute. "Bizikletan gabiltzanok beti esaten dugu familia kargen euren pisua dutela, eta horregatik, ezkongabe, banandu, dibortziatu, seme-alaba bakarrekoak, bikoak, hirukoak... banatuko ditugu gizekoak eta emakumezkoak", argitu zuen Patxi Larrea Fly Groupeko kirol zuzendariak.

Hiru ibilbide, hiru maila

Bizikletan ibiltzen den edonori eman nahi diote parte hartzeko aukera. Horregatik, hiru ibilbide atondu dituzte, norberak bere gaitasunaren arabera aukera dezan. Amateurrak, 29 kilometro eta 1.080 metroko malda izango ditu; Altuak, 38 kilometro eta 1.400 metroko desnibela; eta Proak, 48 kilometro eta 1.780 metroko aldapa. Ibilbideak ez dituzte ezagutarazi, baina 21. kilometroan jarriko duten lehen anoa-postua

arte, txirrindulari guztiak ibilbide bera egingo dute. Handik aurrera, "10 kilometro gehigarriko bukle bat egingo dute maila altukoek; eta azkenik, Buruntza aldera joango dira asko ibiltzen direnak, indartsuak", azaldu zuen Larreak.

Zirkuitua egunean bertan aukeratu dute, beti ere denbora mugak errespetatuta. "Muga dago bukleetara sartzeko. Zaletuenak, amateurrak, aldapak izango ditu, baina egingarria da ibiltzeko ohitura dutenentzat". Irteera 9:30ean izango da eta 3-5 orduko iraupena aurreikusi dute, proba motaren arabera.

Izen ematea www.btllasarteoria.com webgunearen bidez egin behar da. Lehen 500 partaideek Spiuk markako bizkar zorro bat jasoko dute opari, "gutxi gorabehera izen emateak adina balio du". Federatutako txirrindulariek 20,5 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, aldiz, 23,5 euro. Taldeka egiteko aukera dago, baita bizikleta elektrikoarekin lehiatzeko ere. Sari erakargarriak banatuko dituzte, eta ohi bezala, Patxi Larrañagaren txistorrada eta garagardoa dastatzeko aukera izango dute partaideek helmugan.

HIRU IBILBIDEREN ARTEAN AUKERATU BEHARKO DUTE PARTAIDEEK, 29, 38 EDO 48 KILOMETRO

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN GORENGOA
Urnietan KE - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Urnietan.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Euskalduna SD - Ostadar SKT Larunbata. 19:45. Ubitarte, Andoain.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ordizia KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Altamira, Ordizian.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Orioko FT - Ostadar SKT Larunbata. 18:30. Mendibelte, Orion.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Kostkas KE Larunbata. 17:00. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Billabona KE B Larunbata. 15:00. Michelin Kirol gunean.
Euskalduna SD - Ostadar SKT B Larunbata. 12:30. Ubitarte, Andoain.
INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA
Real Union SAD - Ostadar SKT Larunbata. 12:15. Gal, Irunen.

INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT A - Ordizia KE Larunbata. 11:30. Michelin Kirol gunean.
SANSE A - Ostadar SKT B Larunbata. 09:00. Felix Garin, Donostian
Texas Lasartearra - Tolosa CF A Larunbata. 10:00. Michelin Kirol gunean.
INFANTILEN F-8, KOPA
Ostadar SKT - Zestoa KB Larunbata. 11:30. Michelin Kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Asador Irigoien - Avenida taberna Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
Trumoi taberna - Bar Buenetxea Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
Academia London - Izen gabe Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Viña del Mar - Insausti taberna Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
GIPUZKOAKO SENIORRA
Garoa taberna - Idiazabal Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kir.
GIPUZKOAKO I. MAILA
Eskoriatza KE - Aldaz Klinika Larunbata. 18:00. M.Muñoz kir., Eskoriatzan.

GIPUZKOAKO II. MAILA
ISU Leihoak -Aton Troskaeta Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Bar Lasarte - Gael Elkartea Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
GIPUZKOAKO KADETEAK
Balardi Harategiak - Laskorain Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
SASKIBALOIA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Ostadar SKT - Antigua-Luberri KE A Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Astigarragako Mundarro - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Astigarragako kir.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Atletico SS Anie Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR PARTE HARTZEA
BKL Igartzeta - Ostadar SKT B Larunbata. 16:00. Antzizar kir., Beasainen.

KADETE PARTE HARTZEA
Bera Bera - Ostadar SKT A Larunbata. 10:00. Benta Berri kir., Donostian.
CD Errobide Irun - Ostadar SKT B Larunbata. 18:00. Azken Portu kir., Irunen.
LASTERKETA
KILIMON TRAIL
Lasarte-Oriako hainbat korrikalariek Kilimon Traileko 23 kilometrotako proban lehiatuko dira. Larunbata. 16:00. Mendaron.
XIX. DONOSTIAKO MARATOI ERDIA
Donostiako kaleetan barrena egiten den 21 eta 10 kilometroko lasterketan hainbat herritarrek parte hartuko dute. Larunbata. 10:00. Donostian.
ERRUGBIA
SENIORRA EUSKAL LIGA
Durango RT - Zarautz Beltzak RT Larunbata. 18:00. Durangon.
18 URTEZ BEHERAKOAK
Hernani/Atletico SS - Zarautz Beltzak Larunbata. 15:00. Landare Toki, Hernanin.

16 URTEZ BEHERAKOAK
Hernani/Atletico SS - Zarautz Beltzak Larunbata. 11:00. Landare Toki, Hernanin.
PILOTA
PROFESIONALA
Victor eta Erasun - Artega II eta Ibai Zabala Larunbata. 19:30. Fuenmayor, Errioxan.
GIPUZKOAKO LAU TERDI TXAPELKETA
Mozo - Urkia Larunbata. 15:30. Elorri, Alegin.
IGERIKETA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Ainhoa Martin eta Leire Martin ahizpek Junior mailako Espainiako txapelketan parte hartuko dute. Larunbatetik asteazkenera. Sabadellen.
KZL ETA ALEBIN LIGA
Alebin Ligako 6. jardunaldia eta KZL Ligako 4. jardunaldia jokatu dute Buruntzaldea IKTo alebin eta benjamin mailako igerilariek. Larunbata. 15:30. Allurralde, Andoain.

Jon Presa bigarren izan da Azkoitia-Azpeitian

Proba luze nahiz laburrean parte hartu dute hainbat lasarteoriatarrek. 8,06 kilometrokoan Kamel Ziani irabazleak bakarrik aurre hartu dio Presari. Igandean, berriz, Gorka Gil eta Raul Margallo seigarren izan dira Irungo Milia Solidarioan

Txintxarri

Inguruan ospea duen Azkoitia-Azpeitia lasterketa jokatu zuten pasa den larunbatean. Sute baten ondorioz, irteera ordua atzeratu egin zen, baina egun beroa izanik, ezbeharrak korrikalarien alde egin zuen. Hainbat herritarrek parte hartu zuten bi probetan, 8,06 kilometrokoan nahiz maratoi erdian.

Guztietan emaitza onena Jon Presak lortu zuen VII. Azkoitia-Azpeitia lasterketa motzean. Hain zuzen ere, Trinko Triatloi taldeko kidea txapeldunordea izan zen, 26:06ko denboran osatuta ibilbidea. 40 minututik behera gelditu ziren, Julen



J. PRESA

Goenaga eta Mikel Olaiz; Naroa Salsamendi eta Irati Iribar, aldiz, 47 minuturen bueltan bukatu zuten.

Maratoi Erdian, berriz, hamar herritarrek parte hartu zuten. Imanol Arteagak ordu erditik behera osatu zuen proba, Asier Gorostegi gertu egon zen. Handik gora, Eduardo Rivas, Leonardo Juarez, Tomax Arruti, Peio Fadrique, Mikel Ormazabal eta Josean Hernandez heldu ziren. Emakumezkoen dagokienean, Mari Carmen Olasok 1:37:02ko denbora egin zuen eta Arantxa Zapatak, 2:08:53.

Igandean, Gorka Gilek eta Raul Margallok Bidasoaldeko Minbiziaren Aurkako Elkartearen aldeko Milia solidarioan bikote gisa parte hartu zuten eta seigarren amaitu.



OSTADAR IPAR MARTXA TALDEA

Ulia eta Girona, ipar martxan

Ostadar ipar martxako kideek irteera egingo dute hilaren 13an Uliara, 11 kilometroko "zirkular" bat osatuko dute, hiru bat ordu. 9etan hartuko dute joaneko topoa eta 13:15ean bueltakoa. Pazko asteen, berriz, 22tik 27ra Gironara joango dira 19 bat kide. Hiria ezagutzeaz gain, lau kirol irteera aurrekusi dituzte.

Emaitza onak gimnastikan

Pozik daude LOKEko gimnastika taldeetako arduradunak. Asteburuan, eskolarteko alebinetako eta infantiletako B mailan lehiatu dira emaitza onekin.

Alebinen kasuan, Maitane Sarmiento lehena izan da eta taldearekin batera, Gipuzkoako txapelketan parte hartuko du. Infantil B mailan, berriz, LOKEko taldeak ez du sailkapena lortu, bai ordea, Alexia Barkinek eta Aitana Molanok, lehen eta laugarren amaitu baitzuten pilotarekin.

KTG kanpaldiak DBH1-DBH4

DBH 1 eta 2 INGO AL DEU BA? uztailaren 3tik 14ra	DBH 3 eta 4 MEZTIJAIIA! uztailaren 16tik 27ra	TTAKUNeko BAZKIDEAK	BAZKIDE EZ DIRENAK
		241€	260€

PLAZA MUGATUAK MUGI!

zerbitzuak@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Zozketa! Ttakuneko bazkide zara?

Maiatzaren 18an, **Udaberriko Bertso Saiorako bi sarrera** zozkatuko ditugu gure bazkideen artean.

Eman izena apirilaren 29a baino lehen:

harpidetza@ttakun.eus | 646 82 44 66 edo 943 37 14 48



SUKALDARITZA TALEARRA

LH3tik LH6ra bitartekoentzat!!

Noiz: Astelehenetan maiatzaren 6tik 27ra, 17:45etik 19:30era arte
Non: Ttakunenean (Iñigo de Loiola kaleko lokalean)
Prezioa: Ttakuneko bazkideak 11€, bazkide ez direnak 14€.
Eraman beharrekoak: Mantala

Izen-ematea: aisia@ttakun.eus, 695 785 392/943 37 14 48 edo Ttakunen

Zabalak garaipena erdietsi du Mundialeko debutean

Apirilaren 8ra arte, Lorena Zabala izotz-hockey jokalaria Dumfriesen dago, Eskozian, Mundialean lehiatzen. II mailako A taldean ari da jokoan. Txapelketa ongi hasi du. Esloveniaren aurkako partida penaltietan erabaki da Espainiaren alde: 4-3

Nerea Eizagirre

2018. urtean Espainiako izotz-hockey Selekzioa II. mailako B taldeko irabazlea izan zen. Bere taldeko partida guztiak irabazi eta II. mailako A mailara goera lortu zuen. Astelehenera arte, maila berri horretako Mundiala jokatu du Dumfriesen, Eskozian, eta bertan Lorena Zabala lasarteoriatarra dago.

Herritarrarentzat denboraldi osoan egindako lanaren fruitu da txapelketa horretan parte hartzea. Duela hiru urtetik hona, Gasteizko Sumendi taldean jokatu du lasarteoriatarrek, eta aurten Iberdrola Liga hirugarren postuan amaitu du, Donostiako Txuri Urdin taldearen aurka finalerdia galdu ostean. Hilaren 13an, Espainiako kopako finalerdian arantzatxoa kentzeko aukera izango dute gasteiztarrek.

Aurretik, Espainiako Selekzioarekin nazioarteko lehiaketa jokatu du Zabalak. Astelehenera arte, Eslovenia, Mexiko, Britainia Handia, Ipar Korea eta Australiako jokalaria izango ditu aurrez aurre. "Aurten igo gara A mailara. Maila mantentzea da helburua, baina domina bat lortzea ere badugu buruan", aitortu du Zabalak. Ez dute lan erraza izango, "talde indartsuak eta ongi osatuak" baitira guztiak. "Baina gogor egin dugu lan haien mailara jartzeko. Buruz burukoak zailak izango diren arren, aukerak ditugu. Horregatik da zirrargarria".

Erresuma Batua da txapelketako "faborittoa", Zabalaren hitzetan. "Gizonezko 20 urtez azpiko Ligako taldeekin egiten dituzte prestaketa lanak urte osoan zehar. Maila eta intentsitate handiko liga da, eta hori du Britainia Handiko taldeak aldeko".

Hasiera ona

Txapelketa asteartean hasi zen. Lehen partida Espainia eta



Zabala Esloveniaren aurkako partidari. @KARL_DENHAM

Esloveniaren arteko buruz burukoa izan zen. Partida gogorra eta borrokatua izan zen. Espainiako entrenatzaile den Harold Jay Rosenholtz-en taldeak garaipena erdietsi zuen penaltietan. "Lehen partida zen. Urduri eta gogotsu ginen. Guk dugun guztia emateko prest etorri gara, eta lehen partida horretan erakutsi dugu. Penaltietara iritsi ginen eta bertan lortu genuen garaipena", adierazi du herritarrak.

Lehen zatia hutsean amaitu ostean, Espainiak 24. minutuan lortu zuen markagailuan aurreratzea. Bi taldeek gogor jardun zuten, eta bigarren atsedendirako lau minutu falta zirela, Esloveniak berdinketa lortu, eta hortik bi minutura, bigarren gola ere egin zuen.

"MUNDIALEKO BURUZ BURUKOAK ZAILAK IZANGO DIREN ARREN, AUKERAK DITUGU. ZIRRARAGARRIA DA"

Aurka hasi arren, Espainiak hirugarren zatiko 20 minutuak zituen aurretik, eta garaipena zuen buruan. 43 minutuan berdinketa lortu zuen, eta 47an hirugarren gola egin zuen. Esloveniak, ordea, ez zuen amore eman, eta bi minututara berdinketa lortu zuen. Bi taldeak garaipenaren gola lortzeko borrokatu ziren, baina luzapenera joan behar izan zuten. Bost minutuko luzapenean ere ez zen golik egon. Penaltietan erabaki zen guztia eta selekzioko atezainaren lana erabakigarria izan zen. Esloveniarrak ezin izan zuten atea zulatu; Espainiak aldiz, gola egin zuen lehen penaltian.

"Hasiera bikaina izan da. Partidaz partida joan behar dugu. Egunero puntuak gehitzen joan behar dugu", esan du Zabalak. Atzo arratsaldean Mexiko izan zuten arerio. "Taldea gogorra da. Aurrez beste txapelketa batean irabazi dugun arren, %100 eman eta puck bakoitza borrokatu beharko dugu," aurreratu du lasarteoriatarrek.



BURUNTZALDEA IKT

Zudaire, Munduko Txapelketara

Munduko Txapelketan izango da Nahia Zudaire. Asteburuan Madrilén jokatu du Erkidego Arteko absolutu mailako Txapelketan, kategoriako bi errekor hobetu ditu, 100 eta 400 metro librean, eta azken proba horretan egindako 5:17,98 markari esker, munduko probarako txartela eskuratu du. Gainera, *multidisability* sailkapenean hirugarren izan da.



G. ARISTEGI

Bi domina LOKEko judokentzat

LOKEko judoek emaitza gazi-gozoak erdietsi zituzten Euskadiko Txapelketan. Almi Camposek zilarrezko eta Borja Dominguezek brontzeko domina bana jarri zuten lepoan. Martin Sebastian eta Oier Guisado esku hutsik joan ziren.



TXINTXARRI

Emaitza onak Pistako Kopan

Valentziako azken probarekin amaitu dute Pistako Espainiako Kopa; Buruntzazpi Txirindularitza Eskolako kideek emaitza onak lortu dituzte. Asier Pozok eta Jaime Romerok urrea eskuratu zuten junior kategorian; Beñat Carbayadak eta Haritz Seinek, zilarra, kadeteetan. Halaber, sailkapen orokorrean bigarren izan da Carbayada.


ZORION AGURRAK



Oier
Zorionak portera, azkenean iritsi da zure urtebetetzea!!! Ondo pasa eta muxu potolo asko etxekoan partetik!!!



Iraia
Zorionak printzesa!! Oso ondo pasa zure urtebetetzea. Muxu pottolo-pottolo zure ama, aita eta Leireren partetik.



Jare
Zorionak printzesa!!! Ondo pasa zure urtebetetzea!!! Asko maite zaitugu!!!

SUDOKUA

6					2	7		1
	2		7					3
5		9	1	8		6	4	
	8		6	4				5
4			5		8			9
	9	5				4		6
		7	9		5	3		
9		3		6		5	2	
		1	3					8

GUTUNAK

Liburu dendari bati buruz

KUBAN INTXAUSTI

Badira berriak, bapatean gertatzen diren heriotzari lotuak, pentsarazten dutenak. Buruari bueltaka geratzen da bat, lur jota. Goiz, arratsalde eta gauez, heriotzari zentzua bilatu nahian heriotzak zentzu gutxi duenean.

Agian zentzudunena bizitzari begiratzea da. Eta Iñaki Chourrauten bizitzak baditu azpimarragarriak diren ezaugarriak, herriko aldizkarian hausnarketa txiki bat egitera bultzatzen nautenak.

Herritar gutxi izan dezakete eragina gainontzeko herritarren bizitzaren garapenean, irakasleek edo medikuek esaterako, baina baita liburu dendari batek ere, Iñakiren kasuan bezala.

Ez soilik zuretzako egokia izan daitekeen liburu edo filme bat gomendatzen dizulako, baizik eta egoera politikoa gogaikarrietan azaldu dituen jarreragatik batik bat. Norberaren ekintza etiko eta moralak, egoera zailtan aurrera eramanean, balioa irabazten dute denborarekin, momentu jakin batean egin beharrekoa egitera ez baikin denok ausartzen.

Asko gara herritik kanpo bizi garenok, zure alabak eta kuadrilako ugari, baina distantzia honetan konturatzeko gara, zentzu gabeko berria jaso dugunean, zenbaterako eragina izan dezaketen herritar baten ekintza xumeek herritar eta herriarengan; batez ere, bizitzari zentzua ematen diotenean.

Maite izan zaitugun herritar askoren partez.

HILDAKOAK

M^a Carmen Sasiain Ormazabal. Apirilaren 3an.
Arantzazu Iparragirre Iraola. Apirilaren 3an.
Juana Erauntzetamurguil Zincunegui. Apirilaren 1ean.
Emerenciano San Nicasio Rodriguez. Martxoaren 31n.
Segundo Lazaro Gomez. Martxoaren 30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 5	GIL	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 6	GANDARIAS-URIBE	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 7	GANDARIAS-URIBE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 8	ACHA-ORBEA	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 9	URBISTONDO	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 10	GANDARIAS-URIBE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 11	ORUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:


ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:


OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 05




Larunbata, 06




Igandea, 07




Astelehena, 08



Asteartea, 09



Asteazkena, 10



OHARRAK

Udaleko Txokoak

Udaleko Txokoetan izena eman nahi duten guztiek aukera berria izango dute, apirilaren 8an, 9an eta 10ean Antonio Mercero Guneko beheko solairuan. Goizez 11:00etatik 13:00etara irekiko dute, eta arratsalde, 17:00etatik 19:00etara.

Geltoki aldaketa

Basaundi bailara auzoko lanak direla eta, autobus geltokia lekuz aldatuko da. Lasarte-Oriako erdialdera edo Donostira joan nahi duten herritarrek 100 metro aurrerago hartu behar dute autobusa, Zirkuito Ibilbidea 17 zenbakian, hain zuzen ere. Behin betirako aldaketa izango da TSSTko ordezkariek jakitera eman dutenez.

Ostadar SKT

Futboleko 19/20 denboraldia prestatzen hasi gara, eta nesken taldeak osatzeko jokalariek behar ditugu: infantilak (06/07an jaiotakoak) eta kadeteak (04/05ean jaiotakoak). Beraz, hurrengo denboraldian gurekin jokatu nahi baduzu, astelehenetan 18:00etan Mitxelingo futbol-zelaian agertu eta probatu. Abixatu alde aurretik mesedez.


Posta bidezko botoa

Apirilaren 28ko Hauteskunde Orokorretan boza postaz emateko asmoa duten herritarrek, apirilaren 18ra arte dute eskaera egiteko. Alderdi politikoei haien laguntza eskaintzen diete herritarrei tramiteak egiteko. PSE-EEko egoitzara (Ganbo, 1) astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrek edo 943-372 869 zenbakira deitu dezakete.

Bidaia Britainia eta Normandiara

Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatatu du Britainia eta Normandiara, uztailak 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Garajeko marra bat alokatzen dut, hilabetean 60 eurotan, Pablo Mutiozabal 2. zenbakian. Telefonoa: 688 655 218.

LANA

ESKAINITZA
Emakume bat behar da txalet batean etxeko lanak

egiteko. Astean egun bat izango litzateke 3 orduz. Beharrezkoa da kotxea edukitzea. Interesatuak deitu telefono honetara: 646 485 811.

Usurbilgo ileapaindegi baterako langile bila dabilta. Esperientziarekin. 35 orduko lanaldia. 619 06 06 85

SALEROSKETA

SALDU
Ohe artikulatua salgai, motorrarekin, biskoe-lastikako kotoxia eta guzti, salgai. 190x90. Erabili gabea, berri-berria. 700 euro. Harremanetarako: 610 953 258.

Piaggio 50 ZIP 2T motorra salgai. Oso egoera onean eta prezio merkean. 500 euro. Harremanetarako: 610 953 258.

BESTELAKOA

Igor Lejartzaren 'Ilargi Guztiak' azken filma egiteko castinga egingo dute: ume euskaldunak behar dituzte. 10-13 urte bitarteko neskek, eta 11-16 urte bitarteko mutilak. Parte hartzeko bidali gaztetxoen datuak (herria, adina) eta argazkia ilargiguztiakcasting@gmail.com helbidera.


NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Iñigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

"Ile-apaindegira joaten jarraituko dut, bisitan"

Biyak Bat egoitzako ile-apaintzailea izan da Maite Benito 37 urtez. Erretiroa hartu berri du; larunbatekoa izan da bere azken lan eguna. "Pena apur batekin" utzi du lana, baina gustura, berak hala erabaki duelako. "Bizitzaz gozatu nahi dut orain"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Martxoaren 30a, larunbata. Maite Benito (Palentzia, 1955) lanera joan da, Biyak Bat egoitzaren ileapaindegira, azken 37 urteetan egin lez. Egun hori ez da beste guztiak bezalakoa, ordea: bere azken lan eguna da; erretiroa hartzea erabaki du. Sorpresa aurpegiz hartu du kazetaria goizean goiz, ez baitzuen espero. "Argazkiak atera, niri? Ez dakit, ez naiz horrelakoen oso zalea...", erantzun du Maitek. Azkenean, ordea, gustura aritu da, bere ibilbideko kapituluak oroitzen eta orainari eta etorkizunari buruz solasean. Ilea mozten, permanentea egiten eta beste



Maite Benito, Biyak Bat egoitzako ileapaindegian, pasa den larunbatean. TXINTXARRI

hainbat gauzatan trebea da, eta hitzekin ere bai. Ez da harritzekoa: makina bat bezerorekin aritu da kontu-kontari euren ilea apaindu bitartean.

Biyak Baten lan egiten hasi aurretik Mertxe ileapaindegian aritu zen, hamar urtez. "Ikasketak bukatu, eta praktiketan hasi nintzen. Handik hilabete batzuetara han lanean geratzeko aukera eman zidan Mertxek", gogoratu du herritarrak. Hipodromo Etorbidean zeukan negozioa. Osasun arazoak tarteko, ixtea erabaki zuen. Lan bila hasi zen orduan Maite, eta Biyak Bat egoitzan aritzeko eskaintzaren berri izan zuen. 1987ko ekainaren 1a izan zen bere lehen lan eguna. Palentzian (Gaztela eta Leon) jaiotakoa da. 8 urterekin etorri zen herrira bizitzera.

Maitek dio ez zitzaiola zaila egin lantokiz aldatzea. Berehala hasi zen bezeroak hartzen. Oso gustura irteten ziren Biyak Bateko bazkideak egoitzaren beheko solairuko lokaletik. Andre batzuk oraindik badira bere bezero: "Josefa da gaurko lehenengo bezeroa; hemen hasi nintzenetik etortzen da hona". Beste asko,

ordea, ez, adineko pertsonak izaki, hil egin direlako batzuk eta beste batzuentzat zailegia delako haraino joatea. Hori izan da "gogorrena" Maiterentzat: ikustea nola, hainbat urteren ostean, bezero batzuk ez diren bueltatzen. Gainontzean, "oso-oso gustura" aritu da haiekin lanean azken ia lau hamarkadetan.

"Bizitzaz gozatu nahi dut"

Hainbat urtez jo eta su lanean aritu ostean, atsenden hartzeko garaia dela erabaki du Maitek, eta erretiroa hartu. Aipatzen du senarra ere duela gutxi jubilatuta dela. "Paseatzera irtengo gara orain askotan. Deskantsatu egin nahi dut, bizitzaz gozatu".

"Pena apur bat" ematen dio erretiroa hartzea, ordu asko pasa dituelako han lanean eta oroitzapen on asko dituelako. Lasai utzi du lana, ordea, erreleboa ongi lotuta. Yosune Iglesias herritarra izango da bertako ile-apaintzailea hemendik aurrera. "Biyak Baten lan egiteari utzi diot, baina esan diot Yosuneri etorriko naizela bisitan noizean behin". Hemendik aurrera bezero izango da bera ere.

SAGARDO POTE

Apirilak Asteazkena
10 19:00
etatik 21:00etara

**SAGARDOA
ETA PINTXOA**

1,50€

Parte-hartzaileak Sagardotegia

YOLANDA taberna Itxas-buru

TXEMA taberna Mina

TXARTEL kafetegia Rufino

ZUMABURU taberna Bereziartua

PRIMERAN taberna Bereziartua

BUENETXEA taberna-kafetegia Alorrenea

AVENIDA taberna Aburuza

EGUZKI taberna Rufino

ISLA PLAZA ardotegia Urdaira

TERRIKI-TARRAKA
musika elkarteak
girotua

